



EPATZEKO IRAGARKIA

ANUNCIO DE EMPLAZAMIENTO

PAB 95/2023

Honen bidez jakinarazten da Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietako 3. zenbakiko Epategiak, 2024ko martxoaren 18ko Probidentziaren bidez, erabaki duela 95/2023 prozedura laburtuan interesatuta dauden hirugarren pertsonak pertsonalki epatzea, azken probidentzian adierazitako moduan.

Por medio de la presente se informa que el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo nº 3, de Vitoria-Gasteiz, mediante Providencia de 18 de marzo de 2024, ha acordado se proceda a emplazar personalmente a las personas terceras interesadas en el Procedimiento Abreviado 95/2023 de la manera expuesta en la misma.

Prozedura horren xede da Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendariaren 2023ko urtarrilaren 13ko Ebazpena. Ebazpen horren bidez, 2022ko uztailaren 14ko ebazpenak deitutako hautaketa-prozeduraz arduratzen den epaimahai kalifikatzailearen 2022ko abenduaren 19ko Erabakiaren aurka izangai batek jarritako gora jotzeko errekurtsoa ezesten da.

La actuación recurrida objeto de ese procedimiento es la Resolución de 13 de enero de 2023 del Director de la Academia Vasca de Policía y Emergencias, por la que se desestima el recurso de alzada interpuesto por una persona aspirante contra el Acuerdo de 19 de diciembre de 2022 del Tribunal Calificador encargado del procedimiento selectivo convocado por la Resolución de 14 de julio de 2022.

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako zuzendariaren 2022ko uztailaren 14ko Ebazpenaren bidez (uztailaren 26ko EHAA, 143. zk.), Euskal Autonomia Erkidegoko Suteak Prebenitzeko eta Itzaltzeko Zerbitzuetako Administrazio Bereziko Eskalan (Prebentzio eta Itzaltze Zerbitzua mota) suhiltzaile kategoriako azpieskala operatiboan sartzeko hautaketa-prozedurarako deialdia egin zen.

Mediante la **Resolución de 14 de julio de 2022 del Director de la Academia Vasca de Policía y Emergencias** (BOPV nº 143, de 26 de julio) se convocó procedimiento selectivo para ingreso en la Escala de Administración Especial, clase Servicio de Prevención y Extinción de Incendios, subescala operativa, categoría de bombero/bombrera, de los Servicios de Prevención y Extinción de Incendios del País Vasco.

Aipatutako epategiak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 4. eta 40. artikuluek eta hurrengoek, 2022ko uztailaren 14ko Ebazpenaren hogeita batgarren oinarriak eta aplikagarri den gainerako legediak xedatzen dutena kontuan hartuta, erreferentziako prozeduran interesdun zara.

Considerando lo dispuesto por el mencionado Juzgado, así como los artículos 4 y 40 y ss. de la Ley 39/2015, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, la Base vigesimoprimera de la Resolución de 14 de julio de 2022, y demás legislación aplicable, Ud. ostenta la condición de persona



Hori dela eta, honen bidez, zure eskubideen edo bidezko interesen alde egiteko, egoki baderitzozu, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 3 zenbakiko Epaitegian pertsonatu zaitezke, 95/2023 prozedura laburtuan, bederatzi eguneko epean, honako hau Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren web orrian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

interesada en el Procedimiento de referencia, por ello, mediante la presente se le emplaza para que se persone en defensa de sus derechos o intereses legítimos, si así lo considera oportuno, ante el Juzgado de Contencioso-Administrativo nº 3, de Vitoria-Gasteiz, en el Procedimiento Abreviado 95/2023, en el plazo de nueve días, contados a partir del siguiente al de publicación de la presente en la página web de la Academia Vasca de Policía y Emergencias.

Sin./Fdo.: Araubide juridiko, kudeaketa ekonomikoa eta gai orokorretako Dibisioaren nagusia
Jefe de División de Régimen Jurídico, Gestión Económica y Asuntos generales